







R-42578

R-24072

Chirrikilu

A.T.U.  
15395

**Pedro Mari Amerikara  
juan zanian**

1 Illbetz illaren ogei ta seyan,  
San Polikarpo eguna,  
makiñabat jende Ancho aldera  
pausua emandeguna  
Amerikara dijusalako  
gure Pedro Mari ona;  
Zierro dakin fameliatik  
aita faltatzen zaiguna.  
Zeñek etzuen istimatuko  
alako bizi laguna?



2 Utzi dituzu leku zabalak,  
utzi dituzu mendiak,  
utzi dituzu Espaniako  
anai ta lagun aundiak;,  
zuri begira tristetu zaizkit  
alai neuzkiyen begiyak  
oik nola diran bire luzian  
Korritzen duten zubiyak,  
Oraindik anbat gertaliteke  
juntatutzia gu biyak.

## Pedro Mari ill zanian

3      Emen Zizurkildar bat  
genduan gizona  
eskola aundikua ta  
euskaldun zuzena  
Ameriketan urte  
askuan izana  
Pedro Mari Otaño  
zedukan izena,  
amaika bertso polit  
jarrita illzana.

4      Zizurkilgo seme bat  
esan dədan trazan  
euskeratzen  
emen ibilli zan,  
beti konpontzen giñan  
adiskide gizan,  
ez genduen beñere  
asarrerik izan;  
rugarren bisitan  
Amerikan ill zan.

5      Zizurkilgo seme bat  
ain gizon umilla,  
euzkaldun jakintsuna,  
eskolaz abilla;  
zenbait sayo egiñak  
legen zarren billa;  
nik aginduta ezta  
Jangoikuak illa;  
Zeruaren erdiyan  
gertatu dedilla.

## **Oyarzungo Euskal festan**

6      Ay lenagore Oyarzundikan  
atera izanda gizona,  
gaur ni nagoen parajetikan  
urrutikua etzana,  
umilla eta korajetsua,  
leyala eta zuzena,  
lizar makilla aundi batekiñ  
Errroman bertan izana;  
guri elizau siñaletako  
emen eginda iltzana.

## **Ernaniar bati**

7 Andre gazte bat misherablia  
auntz kontura etorriya,  
bere semia shestuan zeukan  
zarpa tartian jarriya,  
Urdaburutik sartu zitzayon  
tranpan arrano gorriya  
arrapatuta eraman ziyon  
¡ay! ura arren larriya;  
oraiñ argatik deitzen diyogu  
aurra galduzan arriya.

## **Ijituarentzat**

8 Milla zortzireunjan  
izan zan kortia  
emen ikusi zana  
negu bat fuertia  
orma beltzak egiñaz  
luzaro nortia,  
berrogei egunian  
gero elurtia,  
Ijituak amona  
jantzuten urtia.

## **Irungo bi aitonari**

9 Aitona bati bestiai galde  
egiten ziyon lenguan,  
eguzkitikan illargiragaño  
zenbacho bire dagoan;  
erantzun ziyon, chit gertu dituk  
kasik alkaren onduan,  
amaika edo amabi metro  
oraiñ ezdaukat goguan,  
obe litzake pilluagorik  
gaur ezpalego munduan.

## **Galdeera bat**

10 ¿Chirrita, ezkontzeko  
ez aldek iderik?  
—Andre gayarengana  
ez dakit biderik,  
ez det nereri beyik,  
ain guchi iririk,  
alaba agindu dit  
amona piririk,  
baña ez dit sartuko  
alako ziririk.

**Zapirañek asi  
ta Chirritak bukatutakua**

- 11 Nai nuke baneukake  
zuk dezun ainbat bisht  
guk badegu chakur bat  
deitzen zayona Lisht,  
atiaren gañetik  
ijuítian pisht,  
azpiko chulotikan  
azkar sartzen da chist.

**Ezker bati**

- 12 Ezkerrak pagatu du  
munta auntsarekin  
maldiziyua botata  
kara beltzarekiñ  
iru duro kenduta  
odolak irakin,  
umilli ibilli balitz  
libre zan birekin;  
lanik asko bazeukak  
andriak irekin.

13 Chirrita ill dala kontatu omendu  
Errenteriyen atsuak,  
susto galanta artuko zuen  
siñare ta gurasuak;  
ayek negarra nere koñata  
eta illoba gashuak;  
bizi naizela jakiñ dezaten  
jartzera nua bertsuak.

14 Izeba zar bat bada Panplonan  
gure echian aziya,  
arechek emanda artua naiz ni  
Batayuaren graziya;  
argana ere allegatu da  
ill naizela notiziya,  
ta gashu-ura an omendabill  
guziya lutoz jantziya.

- 15 Panplonan dedan izeba sharra  
zenbatchu maite dedan nik  
iñola ere ez derizkiyot  
juzgatuko nukianik;  
mandatari bat bialdu nuen  
abisatzera emendik,  
lutu tristiak bota ditzala,  
bizi naizela oraindik.
- 16 Zeruban dauden santu ta santak  
daude triste ta seriyo  
len esan dedan gezurretako  
atsua dala meriyo,  
baldin Jainkuak salbaziyorik  
orri ematen badiyo,  
umildade ta errezzatziak  
askorik eztu baliyo.

17 Atso gashtuak azkar egindu  
bi alabaren tratua  
beste bat laishter salduko luke  
baleuka zeñek artua,  
inozentiak galtzen dabilen  
gaishto desordenatua,  
modu orretan sègitzen badu  
laishter da kondenatua.

18 Bat ichua zan mishérablia,  
salduzuana lenbizi,  
kuarto batian preso jarrita  
atia ziyyoten ichi;  
ezer etzuen ikusten eta  
nora juangozan igesi?  
ay zer gustua emanziyoten  
Luzifer eta Judasi.

## **Gizon gaishto baten gertagaya**

- 19     Larogei urte pasatu ditu  
dirudiyela etsaya,  
oraiñ bi ankak arrastaka ta  
burua soiltzen asiya,  
gizarajuak badu beregan  
makiñabat desgraziya,  
ez dago garai bətian beziñ  
arrua ta lasaya,  
beste munduan ikusiko du  
emen iltzuen artzaya.
- 20     Kulparik gabe bota zenion  
fusillako kargazoya,  
gizon gashuak aserretzia  
ez alzuoen arrazoya?  
diabru zarrak aditzen dute  
zure animen usaya,  
eriyotzaren etorbildurrak  
estututzendu lasaya,  
zuk baño gizon formalago zan  
zuk ill zenduen artzaya.

21

## **Chirritaren bodak**

Ogei eta bi urtetarako  
nitzan ezkondu nayian,  
irurogei ta bederatzitan  
oraindik nago gayian;  
lendabiziko nere preoya  
botatzen duten jayian  
zuzko zezenak izango dira  
Zurriolan ta Kayian.

22

Gañera berriz esposatzian  
debalde Napar zezenak;  
kostako zaizkit galanki baño  
aundiyak eta gizenak;  
ayek iltzeko bi kastillano  
indar aundiko gizonak  
munduan diran onenak dit  
etorritzeko esanak.

23     Dozenerdibat urdai azpiko  
zintzilik daukat jarriyak,  
salchichoi eta lukainka asko  
Aragoitik ekarriyak,  
lau kapoi pare eta sei ollo  
agindu dizkit erriyak,  
ni ezkontzian izango dira  
bankete izugarriyak.

### **Astigarra=ko plazan**

24     Astigarraga urikutunbat  
mendi baten baztarrian  
gustagarritzko ibai zabalak  
dituelarik aurrian,  
erdi erdiyan Fueruen plaza  
kontsejutikan urrian,  
Santiagoren indartza ere  
daukagu geren lurrian;  
emen jendia bizi nai degu  
lengo oitura zarrian.

Astigarra ga zerdan juzgatzen  
25 ez da danentzat erreza,  
eztakiyenak ikasitzeko  
atentziyua jarbeza;  
emen jipoyak artuak dira  
moruak eta franzesa;  
orain jendiak argatik dauka  
indarrarekin grandeza,  
viva Ermoko don Kandido ta  
bere anaya markesa.

### "Estropaso | bat"

26 Albaiteruen sala  
demoniñu artan  
demoniozko estropaso bat  
egin nuen bertan  
demoniñuak emen,  
demoniñuak an,  
demoniñuak non nai  
gorputzaren bueltan,  
demoniñuak sasoi zebillen  
demoniñuetan.

27      Dozena erdi bat bertso  
oraingo berriyak  
bere andre gayari  
Chirritak jarriyak  
emandizkit desgusto  
ikaragarriyak;  
**negar** egin lezake  
**nigatik** erriyak.

28      Neska zar bat tentatzen  
asi naiz lenguán,  
izan ere alako  
polita zegoan,  
umill eta seriyo  
itz egin genduan  
baño gusto guziyak  
eztira munduan.

29 Izketan asi giñan  
biyak gozo gozo,  
eskontzeko mandatu  
egin diyot atzo  
leyotikan ujuka,  
ama ta bi atso  
eztek arrapatko  
uste bezín mantso

30 Ama preparatu zait  
asarrez betia,  
lenbiziko ujubá  
—zenbat dēk dotia  
ainbēste kostatako  
alaba maitia  
lastima izango dēk  
iri ematiá.

31      Zure fameliyari  
errespetoz eldu  
inozente daudenak  
ezditezen galdu,  
diru truka alaba  
nai zenduke saldu;  
lenago gustokorik,  
ez altzayo azaldu?

32      Ez dezu sinistuko  
egiya esandare  
zintzua nai genduke  
pobria izandare  
gure baztarra baño  
obiak nun dare  
alabari sasoya  
pishka bat juandare?

33      Zere alabarentzat  
orrenbeste fama,  
nik ez det sinistatzen  
aizia darama,  
zure baztarrian nik  
egitia lana  
izan liteke baña  
ezdet uste, ama.

34      Itz bat esan biardet  
nere borondatez  
ezbanau iñork lotzen  
grilluz edo katez,  
ezkontzeko ideak  
banituan ustez  
ardua maitatzen det  
andriaren partez.

## **Erniyo**

55      Gure Gipuzkoa-ko  
mendi, itsusiya,  
leku askotatikan  
zaitut ikusiya;  
geyenian bishtatik  
negarrez utziya,  
zuk onratutzen dezu  
gure probintziya.

56      Qure aurreko gerrero zarrak  
Odol erruz ishuriyak,  
Txato char asko pasatu zuten,,  
Txek ango misheriyak;  
Txurrezko armak  
Txagari zeuden  
Txoldaduentzat jarriyak  
Txasik burniya beziñ fuertiak;  
Txskuak eta gerriyak  
Txau sartzen ziran aurrera eta  
Txon kolpe izugarriyak.

## **A = rekin**

- 37 Askotan etzait iruditutzen  
Au danik Euskal Erriya  
Atserritarren jazkerarekiñ  
Ain triste dago jarriya,  
Aitona zarrak nai etzutela  
Apartetik ekarriya;  
Azkartasuna baadegu baño  
Artzen zalla da neurriya,  
Arrazoi gabe pagatzen degu  
Ai zeñen penagarriya!

## **E = rekin**

- 38 Emen jendia biziliteke  
Elkarri ondo egiñaz,  
Ez izan arren gauza samurra  
Ez badator bere griñez,  
Eskeñi zerbait daukagunetik,  
Eman borondate fiñez,  
Ezta obia asarretuta,  
Ezer sufritu eziñez,  
Ezdakitenak ikasitzeko  
Esaten dizutet siñez.

## **Neska zar gaztia**

39      Neska zar baten pasadizua  
iñork nai badu aditu,  
ni banegoke ishillik, baño  
barrenak ezin kabitu;  
berrogei eta amabost urte  
guchieneko baditu,  
parragarrizko kontuak dira  
ondo esango banitu.

40      Edade ortan gona motzakin  
ori da orren modua;  
zazpi errial kosta omenzayo  
afaitatzia burua,  
atze aldeko ille guziya  
bizar labanaz kendua,  
orain bistara azaldu zaigu  
len gordian egondua,  
garai onia abiyatu da  
engañatzeria mundua.

41     Dituan zimak urdindu zaizka  
     eta gorbata gorriya  
     aseri larru baten erdiya  
     dauka lepuan jarriya,  
     sudurra berriz oso luzia,  
     eta begiyaz larriya  
     auts koloreko ubel batekin  
     amarratuba gerriya,  
     poxpolo kajan paraliteke  
     ain dago parragarriya.

42     Topo eginda beira jarri naiz  
     sorgiña zalako ustetan,  
     igarri niyon kristaba zala  
     asi zanian izketan;  
     nik esan nion: gaur orla eta  
     zer ote ziñan gaztetan?  
     erantzun ziran: esposatzia  
     orain jarri naiz kasketan,  
     nobiyo on bat billatzen dedan  
     or izandu naiz festetan.

43 —¿Beraz neskacha gazte denbogorik ezta izandu? (ran

—Ez komentzi aundirikere,  
erdi negarrez esandu,  
okertu nitzan ba tekiñ eta  
geroztik ez naiz zuzendu.

—Komenentzi bat jarriko dizut,  
ontzat artuko bazendu,  
ni ere oraindik soltero nago,  
naizu nerekiañ ezkondu?

44 Nik edadia aitortukodet

bautismuan dan bezela,  
jendiak esan ezdezan iñor  
engañatzen gabiltzala,  
irurogei ta beatzi urte  
alde shamar gabiltzala.

Ark eman ziran errespuesta  
neretzat franko itzala,  
gero egongo giñala, baño  
bastante zarra nitzala.

## **Dantzariyaren premiyua**

- 45** Lengo batian Saran izan naiz  
Santa Gurutza pasatzen,  
lau kaskaneta etorri ziran,  
etziran asko losatzen,  
arpegi beltzak zituzten, baño  
ongi zekiten dantzatzen,  
mundu onetan onen piskorrik  
zanik eznuan pensatzen.
- 46** Titi gabeko mutur igar bat  
presentatu zan lenbizi,  
bi eskuaidi chistu emanda  
plazan saltoka zan asi,  
nere begiyen aurrian ezdet  
piskorragorik ikusi,  
on ustekua baziran baño  
ura zan ango nagusi.

47 Beste bi belch belch ensayatutzen  
ibillituba jai ta aste  
beren ordua bete danian  
aik ere<sup>z</sup>deitu dituzte,  
duro erdi bana emanziyoten;  
gelditu ziraden triste,  
batek esandu: ez dizkiñagu  
patarretako ainbeste.

48 Laugarren orrek ere bazuben  
dantzatzeko jeniyua,  
esanaz: viva erari ona,  
pakia<sub>ta</sub> uniyua,  
erakutsi du zertarako zan  
ark bere oponyua,  
titi gabeko mutur igarrak  
eraman du premiyua.

## **Amerikako bizitza**

49      Europatikan askok egin du  
Amerikara bishita,  
eche onian jayoagatik  
danak an ezin bizi ta  
lana egiñaz aberastuak  
dabiltza ondo jantzita,  
gaur ez lituke ezagutuko  
beren amak ikusita.

50      Ni ezagutzen nituan zenbait  
Amerikara juantzian  
gu emen asko gauden bezela  
poltsatik ariñ antzian  
ta orañ berriz pasiatuaz  
lujo aundiko kochian;  
gaur gizon batek eztu jakiten  
bestiak nola bizian.

51      Andik onera ezin liteke  
diru askorik bialdu,  
bat bera nola gertatuko dan  
segurantzirik bai aldu?  
Ameriketan aberasteko  
eztira basta bi ordu  
an ere zerbait izango bada  
berak sayatu biardu.

52      Ameriketan euskaldun asko  
dauzka begiyak argiyak,  
an daude bere aziendakin  
mendi ishkiñan jarriak  
izanagatik eunka beyak  
eta millaka ardiyak,  
urte batetik bestera igual  
galduko zaitzka erdiyak.

53 Ameriketan asko dabilta  
nik kalkulatzen dədanez,  
naiko okelak janagatikan  
erari guchi eranez;  
gure sagardo maitagarriyak  
aparte daude esanez,  
nayago nuk an banegoke  
naiz diru asko izanez.

54 Lagun prestuak aldamənetik  
trankilidate onian  
okela jan da ura eranez  
ariliteke lanian;  
nere biyotza konsolatzen da  
au pənsatzen dedanian,  
pəna guziyak aztuko dira  
aberazten geranian.

55      Mutill zintzuak Ameriketan  
          sobra lezake dirua,  
          ura daukanak seguratzen du  
          mundu ontako zerua,  
          andik aurrera nun nai badago  
          dibertitzeko modua;  
          toki on asko badira baño  
          Donostiya da burua.

56      Amerikatik baldin baletor  
          gizon bat ona ta fiña,  
          bere lanaren sakrifiziyoz  
          diru puska bat egiña,  
          parientiak bisitatzera  
          ark dakarren atsegiña  
          allegatzian eztu faltako  
          ondo zeñek itz egiña.

57

Nayogatikan oyek bezela  
ez dau errez irauten,  
denbora askuan bajatu gabe  
mendiyan dira egoten,  
ango langille jendiak eztu  
ardo askorik egaten,  
arren ederrak ez dakit nola  
konserbatutzen zeraten.

58

Len esan degun indianua  
allegatu da echera;  
ama gashuak laister alcha zan  
ari lepotik eltzeria,  
esanaz: Nere seme maitia,  
sano ta ondo altzeria,  
kristau biziya nekez bezenik  
nunbaitetik azaltzeria.

59      Bai, amacho, bai aguantatudit  
osasuna ta biziyak  
nerekiñ ara juan ziradenak  
ez daude onla guziyak,  
baditu aski lagun maitiak  
illda lur-pian utziyak,  
nerau chit ondo ibilliya naiz  
Jangoikuari gراziyak.

60      Gizon prestuba etorri zaigu,  
onradua ta lasaya,  
lenago ere etzan izandu  
familiaren etsaya;  
diru puska bat aurrraratu du  
badauka naiko sasoya,  
gure auzoko neska zar batek  
laister artu du usaya.

61      **Mandaburuko Indianua**  
etorri omenden neska,  
atzo nigatik ibilliya da  
soltera nagon galdezka,  
laister emenden pretenditzera,  
jai! au demontrezko festa,  
jai ze trajia egingo nuken  
aren diruba baneuzka!

62      **Ark berrogeita bat urte dizkin**  
nik ogeita emezortzi,  
urrezko erlojuba omenzaukan  
bere kate eta guzi,  
erretratorik ere ez diñat  
juantzan ezkero ikusi,  
baña egingo diyo danaden  
biartzen banau ez utzi.

63 Nik emezortzi urte nituen  
ura emendik juantzian,  
geroztik beti eche batian  
jardun omenda lanian,  
Buenos Aireskik urruti gabe  
Platako aldamenian  
amabi milloi bankuan dauzkan  
euskaldun baten mendian.

64 Gure izeba Franchika Antonik  
on la esandu lenguau,  
Mandaburuko Indianua  
nola topo eginduan  
par irribatek itzuli diyo,  
zerbait bazeukan goguan  
buru zuritzen asida baño  
jai zer mutilla dagoan!

65 Izeba neri ezdit importik  
naiz izan erdi zartua,  
gazte chorua baño obe det  
juiziyuan sartua,  
diru piska bat baldin badauka  
egingo degu tratua;  
—ia mutillak ekarri lasai  
baziok zeñek artua.

### **Alperraren suertia**

66 Kalipurniyan euzkaldun bati  
gertatutako kasuak  
danak eztitu merezi baña  
esango dizut batzuak;  
penagarriyak ziran orrek an  
eman zituan pausuak,  
azkenerako lagundu diyo  
gure Jaun amorosuak.

67 Alperkeriyak bentzitu zuan  
astu zitzayon lanian,  
golfo guziyen kapitan zegon  
Kaliforniya danian,  
usandutako okelak janaz  
beti ziar etzanian  
ango zakurrak kontentu ziran  
ura etorrizanian.

68 Labak aldian juntatzen ziran  
iturri zoko batera  
usandutako okelak eta  
galleta puzkak jatera,  
Gobiernuak bota zituen  
Arjentinako partera,  
parientiak orren sustraya  
etzuten erresh ateria.

69 Bi naziyotan zeuden jendiak  
aspertu zituan iya,  
gure Jainkuak lagundu zion,  
eta bazeukan premiya,  
an zebillela izandu zuen  
tokamentu bat aundiya,  
lanian asko biartugabe  
izanda orrenIn diya.

•

70 Altzan bezela billatu eta  
ekarriya dute andik,  
an partiera nola izantzan  
goguan degu oraindik,  
golfo guziya ujuka noski  
eziñ arturik chandik,  
—beti gu joka aida eta  
eramazute emendik.

## **"Reina Rejente"=ri**

- 71 Aitona zar bat suplikatu zait  
guztiz modu egokiyan  
bertso batzuek onak ipintzen  
ia bai alnerokiyán  
ikusi orduko igarri niyon  
etzebillela tranpiyán,  
arren lastima zabalduko det  
euskerá dagon graziyan.
- 72 Aitona orrek klaro esan dit  
gizon prestuaren gisa,  
orain galdu dan bafori ortaz  
kanta jarri albanitza,  
dolorez azitako seme bat  
nola ito zayon aisa,  
gishagashuaz urrikalduta  
bayetz emandiyot itza.

73 Modu ortako deskalabrorik  
legorrian da bustiyan  
etzait goatzen gertatudanik  
nere denbora guztiyan,  
pasadizu au nai arren zailda  
adierazten itz biyan,  
amaika amaren seme sartu da  
itsasuaren azpiyan.

74 Kartzela zarren onduan dago  
Donostiyako kuarteria,  
izenez ezin separatu det  
andik urrengo otela;  
len esan dedan aitona zar au  
etzan jeniyoz motela,  
emáztia ta biyak an zeuden  
negarra zeriyotela.

75     Kristo zérura iyo zanetik  
orain daño bitartian  
orrelakorik ezta gertatu  
Españaiko partian:  
milla zortzireun laroiei eta  
amairugarren urtian  
gure bafore «Reina Rejente»  
ezkutatu da ur pian

### **Berso Berriak**

76     Gure aurreko guraso zarrak  
aspaldi samar iltzian  
guk ainbat faltatu gabe  
fede santuko itzian,  
izar tartetik or daude beixa  
jendia nola bizian,  
negar malkuak dakazkitela  
fuerua ofenditzian,  
zer kontatua izango dute  
Josafatera biltzian.

77

Kantabriya da ibai eder bat  
guziya arraiz betia,  
eta geyena jenero fiñak,  
bastuak banakak dia  
beste erriyo zatar batzuek  
artu ziguten partia  
fortunatzenda gaistuak ona  
bentzutu edo jatia  
beragatikan dago asarre  
ur onen ama maitia.

78

Nola echian esposatuta  
nagusitzen dan morroya,  
alashen dago ibai on oñtan  
gaistuetako arraya  
egiten azi giñadenian  
airi ongi etorriya  
galdu giñuen bizi lekua  
barriyua eta erriya,  
eusklaldunentzat an izanduzan  
egun goguangarriya.

79     Zori gaistozko gerra zibilla  
sortu zalako meriyo  
lau probentziyak gelditu giñan  
fechaz beteta seriyo  
egun batian lur jo genduben  
ezin giñazke gora iyo,  
berriz alchako ote geraden  
ere ez naiz oso fiyo,  
erdara etzan bakarrik kapaz  
euskarak lagundi diyo.

80     Gau eta egun antzika dago  
gure Kantabri ederra  
alde batea nayo genuke  
espalitz emengotarra,  
mundu guziyak aditutzendu  
euskaldunaren negarra  
eupeñatzia ezpada libre  
alperrik degu indarra,  
au da choriyak gari tartian  
gosiak egon biarra.

- 81      Abilan + arrena zijualarik  
Franziyatikan pa suan  
uso eder bat deskuidatu zan  
· Urbietaren lazuan,  
golpe gaishtorik etziyon eman  
ta artu zuban besuan  
maitatu eta festak egiñaz  
aiñ modu kuriosuan;  
lau probintziyak kintatik libre  
Don Juanek eskatu zuban.
- 82      Lenengo etsayak erromatarra  
bigarren chandan jentillak  
ta gero berriz francesarekin  
izugarrizko batallak  
gure aurreko aitona zarra  
asko dira gerran illak  
mundu guziya bildurtzen zuten  
Kantabriyáko mutillak;  
oraingo mauser ainbat baziran  
orduko lizar makillak.

83 Baldiñ egiya esaten badu  
libruan dago fediak  
isla asko ta onak zituen  
len EspaÑiyak beriak  
ta geyenetan agintzen zuten  
euskarazko aguriak;  
orain geyena galdu ditugu  
iya egin du guriak,  
zeruko Aita zuzen gaitzazu  
nola baikeran zuriak.

84 Lengo San Tomas egun batian  
zazpiterdiyak aldian  
aitona bati begira egon naiz  
Zurriolako parian,  
dudarik gabe dabil fueruak  
ekarritzeko idean,  
oso kontentu apena dagon  
atze erritarren mendian  
ezpatarekin erakusten du  
euskal mendiak nun diran.

85 Garai batian Kantabri on au  
erregalotan bizi zan  
ta orain berriz jarri gaituzte  
miserablearen gizan.

Ez ain eskasak geradelako  
gerran edo gudaritzan,  
Tubalen kasta nimbait oinpian  
ikustia komeni zan,  
Urbietaren pausu tristiak  
etziran alperrik izan.

86 Alegre bizi banitzan ere  
nago tristetzen asiya.

Atze errietarrak egin digute  
iya naiduten guziya;  
juan dan ogei ta amar urtian  
aushen da diferenziya,  
arra佐i gabe kendu digute  
urreko kredenziya,  
gu emen ondo ekustiagatik  
guraso zarrak utziya.

87      Lekobide zan euskalduntarra  
gerrero izugarriya,  
Erromari ta beste askori  
artu ziyoiten neurriya,  
ta Otzobalek egiten zion  
aldamenetik guardiya;  
irugarrena lartaun gaztia  
seme orde ekarriya;  
gaur Kantabriyan badago alako  
kuadrilla baten premiya.

88      Gure arbola maitagarriyak  
etzuен ori merezi,  
Otzobalek eta ayen nastuak  
jarri zaizkiyo nagusi,  
euskaldun danak lagun zayegun  
ez iñor galtzera utzi  
Kantabriyako lastima au zerdan  
orra nik adierazi;  
paper bakoitzaz amar zentimo  
nai ditubenak erosit.

## **Aita eta zui gaya**

89      Gizon bat etorri zait  
prestuaren gisan  
biyak aita eta sui  
biagula izan,  
alabak ere naiko  
zuala zeritzan  
nola kastu aundiak  
bai zeuden Elizan  
dotia sobratzera  
Bilbao'ra juan nitzan.

90      Bilbao'tik etorri ta  
lenengo galdera  
aita lengo itzetan  
konforme algera  
mutill zintzo batekin  
izandu aukera,  
nayago nun itzik  
ez banu atera,  
bazijuazke beste  
paraje batera.

91 Nai duena egin da  
or dago seriyo,  
onuzkero juan da ta  
zer erremediyo  
kristau suertosuak,  
ez giñan gu jayo  
zintzotuko nitzala  
nunbait etzan fiyo  
Astiasuar bati  
entregatu diyo.

92 · Lənbizi egindiyot  
asarre papera,  
estimatzekua da  
orlako aukera,  
baño gorroto charra  
danentzat kalte da,  
ia litro bat ardo  
lenbizi atera  
ori eranaz bapo  
konponduko gera.

93      Biyak mayian giñan  
esheri ta jarri  
pasadizuak esan  
dizkagu alkarri,  
uelga bat sortu ta  
ibilli naiz larri,  
iru duro besterik  
ez ditut ekarri,  
bayetzkua izan bazan  
nitzan parragarri.

94      **Nagusiya ta Maisterra**

Oraiñ artian ni izandu naiz  
aitona zure nagusi  
errenta chincho pagatu dezu  
zere kapoi eta guzi,  
zu baño gizon umillaguak  
ezditut asko ikusi,  
oraiñ eche saltzera guaz  
nai bazenduke erosi.

95      Larogei duro zuben errenta  
echiak oraiñ artian  
zedorrek ala pagatu dezu  
berrogei ta amar urtian,  
lenguan bertan gelditutzia  
ezta nerezat kaltian,  
bost milla duro baliyo ditu  
ia konpondu gaitian.

96      —Zer familia izandu degun  
jauna nai alditu aditu?  
amabi aurren aita naiz ni ta  
semiak amar baditu,  
lan egiteko iñor guchi ta  
mayian eziñ kabitu,  
baneukake non empleatua  
bost milla duro banitu.

97      Au aditu ta beste aldera  
bueltatu zan nagusiya  
esanaz: nik zer kulpa dadukat  
zuk ume asko aziya,  
ez dezu asko ishtimatzen, nik  
egin dizuten graziya  
zuek artu nai ez badezute.  
bada zeñek erosiya.

98      Ezkerrik asko nagusi jauna  
pakian biagu bizi,  
baña izkētan bukatu arte  
ez bedi juan igesi,  
klaro dabilen gizonak eztu  
arrazoi charrik merezi,  
naidubēnari saldu bezayo  
guk ezkenzake erosи.

99     Aziendaz ta lan erremitaz  
bagendukan indarra,  
ayekiñ ere ezdegu orain  
oso alderdi ederra,  
zazpi baliyo luteken gauzak  
bostian emanbiarra,  
au pentsatzian etertzen zaigu  
begietara negarra.

100    Amabi lagun mayian bueltan  
juntatzen gera jateko,  
geyenaz ere ayetatik bost  
irabazira juateko;  
pazientziya artuko banu  
anbat ez nuke kalteko,  
Jaungoikuari eska zayogun  
osasuna emateko.

101 Prezisamente marchatu biau  
baserrira edo kalera,  
norbaiti egin biarko zayo  
bizi lekuen galdera  
esplikatuaz nola izandan  
fameliyaren galeru,  
gure Jainkuak nai duen arte  
nonbait mantenduko algera.

### Ijituak

102 Esplikatzera nua kontuak  
ijito jende oyenak  
nola diraden gure artian  
gertatu izan diranak  
alperrak edo moskorrik dira,  
erdi lapurrik geyenak,  
okasiyua ta eskandalua  
faltatutzen etzayenak.

103 Beren asto ta zakur eta ume  
emen dabilta jai ta aste,  
Mikeletiak iñoiiz aurrian  
atera izandu dituzte,  
berak baño len ostera etorri  
ta persegitzen gaituzte;  
beste olako naziyorik bat  
iñondanik eztet uste.

104 Beren asto ta zakur eta ume  
dabiltza juan etorriyan,  
emakumiak lasto petresto  
kasikan larru gorriyan;  
gizonak berriz mosketa aitzaki  
beren aizturrák gerriyan  
siñalienbat utziko dute  
sartzen badira erriyan.

105 Emakumiak aurruk artuta  
eskera dijoazenian  
echeko andre limosnacho bat  
Jainkuaren izenian,  
ofrezimentu luzia baño  
errezo motza azkenian;  
gauza guziyak gero berentzat  
iñor bistan eztanian.

106 Kojitutako aberiakin  
nola naiduten jokatu  
emen ostattu auntz eraman,  
an saldu edo trukatu,  
anguak berriz onuntz ekarri,  
jabiak ezin topatu,  
kontu garbiya nai duenak ez  
ijituakin tratatu.

107 Ijituetañ guchi izaten  
dirade berriz əntzuak,  
naturalezaz kasta gogorrak  
ta gañera umetsuak,  
bizkarrian bat, tripan bestia,  
aldamenetan batzuak,  
sall galantakin ikusten dira  
dabiltzala geyentsuak.

108 Usandutako okelak jaten  
dira pare gabekuak,  
anima salbo, zakur gosiak  
diraden bezelakuak,  
naiz izan usteldu ta lurpian  
luzaro egondakuak,  
istimatutzat daramazkite  
oriyek orrelakuak.

109 Sasiyetako oyalak eta  
ollokojitzen atsuak  
ta kalietan poltsak miatzen  
dabiltza mutill gaistuak,  
gizonak berriz mendiyetatik  
biorrak eta astuak  
gauza gozorik senti badute  
azkar eranchi eskuak.

110 Asolbiziyo biarrik ere  
ezta izaten oyekiñ  
fakultadia «Aita Santuak»  
ainbat badute berekin,  
naiz aide izan ezkontzen dira  
alkar naidutenarekin,  
orretako gazterik pronto  
naiz dotriñasik ez jakiñ.

- 111 Neska mutillak tokatzen bada  
berentzat elkar artzia,  
zelebre diran kontuak ortan  
ere badarabiltzia  
buruaz gora botako dute  
autzi dedilla eltzia,  
zenbat puzka egiñ ainbeste ur-  
egituen ezkontzia (teko

- 112 Eche karrera ola telleri  
legorrak dauden tokira  
jeneralion gauetarako  
erretiatutzen dira;  
atenziyuan egon izan naiz  
nola dakiltzan begira,  
eztute onik asarretutu  
purrukatzan ez badira.

## **Chirrita'ren lendabiziko bertso lagunak**

- 113 Milla zortzireun irurogei ta  
amalau urte urrian  
lenengo plazan kantatu nuen  
nik Ernaniko lurrian,  
San Antonio deitzegun diyogun  
Ermita baten aurrian,  
lagunak alkar ishtimatuaz  
lengo oitura zarrrian.
- 114 Joshe Migelek atera zuan  
oso izketa leguna,  
au da, gaztiak, prezisamente  
guk egin biar deguna,  
alcha dezagun San Antoniyo,  
gaur da beraren eguna,  
gaur Goyatz chikin dago ichututa  
orduko nere laguna.

115     Orduko ango bertsolariyak  
lau lagun giñan guziyak,  
Ernanin bertan batayatuak,  
barriyu ortan aziyak;  
Joshe Migel da Erramun illak,  
ni ta Juan Mari biziak,  
San Antoniok merezi du ta  
eman zaizkagun graziyak.

116     Irurogeita amarbat urte  
baduzkat bizkarrian,  
kärgamenturik charrena au da,  
eziñ utzi baztarrian;  
anka batetik kojoka nabill,  
«reuma» daukat ixtarrian,  
baño baditut laguntzalliak,  
ez nago modu charrian.

117 Gazte gazterik asi nitzan da  
orañ daño bitartian  
zenbait umore eder jarri det  
Kantabria'ko partian,  
pishka batian ez naiz aztuko  
sartuagatik lurpian,  
nere aitamēnak izango dira  
beste larogeい urtian.











